

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 24an aho batez onartu zuen Bidasoa Oarsoko Industrialdea SArek ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Gainera ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantza jardura arautzen duen lege arautegia, nahiz HKEEk ezin egiaztatu ahal izan duen berariaz gaitutako kanpoko enpresa batek langileak hautatzeko egindako prozesua.